

**MARTXOAK 8  
EMAKUMEAREN  
NAZIOARTEKO  
EGUNA**



Minervaren foroa:  
Elkarrizketak Oiasso-n

**MIREN ARZALLUZ-ERI  
ELKARRIZKETA**

**Miren Arzalluz Loroño** da orain Etxepare Euskal Institutuko zuzendari berria, eta euskara mundu osoan ezagutzera ematen, bultzatzen eta sustatzen jarduten du. Deustuko Unibertsitatean Historian lizentziaduna da, London School of Economics fakultatean Masterra Politika Konparatua eta Courtauld Institute eraakundean Masterra Artearen Historian, Trajearen Historiaren espezializazioan. Bere ikerketa esparru nagusia trajearen eta modaren historia da. Victoria & Albert Museum-etik eta Kensington-eko Royal Ceremonial Dress Collection izenekoetik pasa ondoren, museoen alorrean garatu da, eta Etxepare Institutura etorri arte Kontserbatzailea izan da Getariako Balenciaga Museoa.



Miren, herritarrok moda-kontuak bere alderdirik friboloenarekin lotzen dugu, baina zuk historiaren eta artearen ikuspuntutik lan egin duzu profesionalki alor horretan. Zure ustez zer ekarpen egin diezaioke modaren historiak museoen eta ondarearen arloari?

Moda ez da bakarrik munduko industriarik indartsuenetariko bat. Gure identitatea gauzatzeko eta gure izaera eta pentsaera espresatzeko erabilgarri dugun tresna garrantzitsuenetariko bat da baita ere. Horrela izanik, moda, jantzia, gizartean ematen diren aldaketa, iraultza edo transformazioen adierazgarri bezala ulertu beharko genuke, gure

historia eta kulturaren azterna bezala hain zuzen ere. Garai jakin bat era sakonean ezagutzera emateko museoek moda beraien bildumetan txertatzea, edota erakusketa bereziak lantzea ezinbestekoa iruditzen zait.



Bildumen arduraduna izan zinen [Balenciaga Museoan](#) eta monografia bat argitaratu duzu diseinatzaile handiari buruz: Zeintzuk izan ziren Getariako jostunak moda-diseinuari egin zizkion ekarpen garrantzitsuenak?

Balenciaga jostun gaindiezina izan zen. Goi mailako jostuntzari egin zion ekarpen teknikoak ez du parekorik, ez bere garaian, ezta bere ondorengoaren artean ere. Diseinatzaile bezala aldiz emakumearen silueta birpentsatu, eraldatu zuen. XX. mende hasierako

moda iraultzaileen berrikuntzak barneratuz – Madeleine Vionnet eta Coco Chanel batez ere - 50. eta 60. hamarkadetan emakumeei mugitzeko askatasuna bermatzen zuten forma alternatiboak eskeini zizkien. Modaren abangoardiaren lehen ordezkariak jo dute askok, XX. mende bukaerako belgiar eta japoniar eskolako diseinatzaileen aitzindaritzat hain zuzen ere.

Modaren mundua genero-estereotipoz betea dago: esate baterako, gizonen moda eta emakumezkoena erabat desberdinak dira eta bata bestea baztertzen du (salbuespen gutxi batzuk kenduta). Aldatzen ari dela uste al duzu? Zer egin lezake modak estereotipo horiek apurtzeko?

Gizartean emakume eta gizonen estereotipoek existitzen jarraitzen dute, hauen rolekiko jarrera atzerakoiek dirauten bezala. Dena den, genero gabeko diseinua indartsu ari da sortzaile gazteek bultzatuta. Datozen belaundaldiek beraien identitatea era askeago batean garatzeko aukera izango dute, genero, adin edo bestelako mugatetik haratago, pertsona libre bezala jantziko dira.